

**687/2015-I KEREILAREN KUDEAKETAN ALKATETZAK IZAN DUEN JOKAERARI
BURUZKO MOZIOA, EHBILDU UDAL TALDEAK EAJ-PNV AURKEZTUTA ETA EAJ-
PNV-ren ADIZIOA**

Lasarte-Oriako Udalak Ana Maria Urchuegia Asensio andrearen kontra jarritako kereila dagokionez, guk eskatu eta 1621 zenbakia duen Alkatezako Dekretuaren bidez, 2016ko irailaren 14koa, emandako dokumentazioa oinarri hartuta, ondoko hainbat gertaera hauen berri izan dugu, orain azaldu nahi ditugunak.

Aurretik esan, publikoki ezaguna den moduan, 2014ko abenduaren 19an Udal Batzarrak hartutako erabakian ahalmena eman zion alkateari Ana Maria Urchuegia Asensio andrearen kontra kereila jartzeko prebarikazio eta fondo publikoak bidegabe erabiltzeagatik. Nabarmena den moduan, kereila honek izaera guztiz pertsonala dauka, Ana Urchuegia andreari dagokiolarik, zeinean, horretarako eskumenik gabe, udal fondoak modu arbitrarioan erabiltzearen erantzule izatea egiten zaio. Hala ulertzen du ere bai Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak kereila tramitera onartzean 2015eko martxoaren 4ean emandako autoan. Horrela adierazten du:

-- *"...existen aspectos destacados que exigen una investigación judicial pues, presuntamente, podrían constituir delitos penales: a mero título ejemplificativo mencionar que (...) se atribuye a la denunciada un delito de prevaricación que se apoya, entre otras cosas en ilegalidades o irregularidades tales como la ausencia de dación de cuenta o la inexistencia de anotaciones o resoluciones en los correspondientes administrativos, la insinuación de la falta de justificación de partes importantes de proyectos subvencionados, (...) la desviación de fondos públicos relacionada con la forma de gestionar los proyectos subvencionados, se trata de la sustracción de los órganos técnicos de la Administración del destino de algunas partidas o de la opacidad en la gestión, todo ello imputable a (...) la denunciada Ana Urchuegia"*.

-- Eta gero gehitzen du, *"...con la querrela se aportan documentos susceptibles de generar una duda razonable sobre la culpabilidad de la denunciada como, por ejemplo, cantidades que se solicitan por particulares o trabajadores vinculados a OLHOS desde Somoto y que se conceden en los términos que antes hemos hecho constar"*.

-- Azkenik, hórrela adierazten du, *"..una operación inmobiliaria que despierta dudas desde el punto de vista de la legalidad..."*.

Aurrekariak aipatu ondoren, azken hilabeteetan gertatutakoaren berri ematen saiatuko gara ahal den modu laburrean, beti ere Alkatezaren Dekretu bidez jaso dugun dokumentazioaren arabera:

2015eko ekainaren 24ean bilera bat egiten da abokatu jaunarekin Alkatearen bulegoan. Bertan, Alkate jaunak Udal Erregistro Orokorrean Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian 687/2015-I zenbakiaz instruitzen ari den kereilaren kopia bat uztea exijitzen dio Abokatu jaunari.

Kereila bulego publiko **estrajudizial** batean uzteko Alkate jaunaren eskaeraren aurrean, Abokatu jaunak kereila behin tramitera onartuta izanik eta bere edukietan oinarrituta diligentziak praktikatzen ari zirela, kereilaren edukia instrukzio judizialaren elementu bat zela eta, ondorioz, sekretupean dagoela jakinarazten dio, eta horrek kereila bulego estrajudizialean uztea eragozten ziola.

Aurreko guztia, nahiz eta Alkateak esan (inoiz gezurtatu ez duen baieztapena) bazuela kereilaren kopia dagoeneko, ez dakigu zein bidetatik, esplikatu beharko ligukeena.

Edozein kasuan, 2015eko ekainaren 26an, eta Abokatu jaunari erregistratutako posta bidez, Alkate jaunak kereilaren kopia Udal Erregistro Orokorrean uzteko eskaera berresten du idatziz.

2105eko ekainaren 25ean telefonoz hitz egiten dute eta bertan, Abokatu jaunaren idazkiaren arabera (Alkate jaunak inoiz gezurtatu ez duena), Alkate jaunak desleialtasuna leporatzen dio eta “me reprime con ira incontentida”, “me pregunta airadamente”. Hori guztia, hitza behin eta berriz eten ziola, “el tono y la expresión de la regañina de Vd. no respetó la dignidad del abogado en el ejercicio de su función” abokatuaren ustez suposatzen zuelarik.

2015eko ekainaren 29an, erregistratutako posta bidez berriro, kexu-idatzi bat bidaltzen dio Alkate jaunak Abokatu jaunari, idazki horretan Alkateak kereila Udal Erregistro Orokorrean uztea eskatzen dio beste behin ere, eta konportamentu desleiala eta informazioa ezkutatzea leporatzen dio aldi berean.

Honen harira, Alkatetzan pasatako dokumentazioan bertatik ondorioztatzen denez, Abokatu jaunak behin eta berriz gonbidatu du alkate jauna bere abokatu bulegoan dagoen prozesuaren dokumentazio guztia aztertzeko. Alkate jaunak inongo momentuan aintzat hartu du gonbidapen hori.

Alkate jaunaren jokaera ikusita, 2015eko uztailaren 7an abokatuak idazki bat aurkezten du Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestuaren aurrean, Alkatearen jokabidea salatuz bertan. Idazkia, ondokoa adierazten du alkateak, besteak beste: *“la presión y exigencia del Sr. Alcalde para que en el ejercicio de mi función de letrado infrinja la ley e incumpla los deberes estatutarios y deontológicos, forma parte integrante de un trato vejatorio general dispensado por el mismo a este despacho”*.

ICAG-ren 42.c) artikulua aipatzen du, abokatuaren betebeharren artean aipatuz: *“Denunciar ante el Colegio cualquier atentado contra la libertad, independencia o dignidad de un abogado/a en el ejercicio de sus funciones, o en cualquier otro supuesto en que resulte razonable la intervención del Colegio particularmente cuando exista amenaza o riesgo para el mantenimiento del secreto profesional”*.

Eta Abokatuen Elkargoen babesa eskatzen du, *“las exigencias del Sr. Zaballos y trato que dispensa a este despacho atentan contra el deber del secreto, profesional y sumarial, y la dignidad, libertad e independencia del abogado en el ejercicio de su función”* ulertuta.

2015eko uztailaren 30ean Abokatuen Elkargoaren Gobernu Batzarrak **aho batez** abokatuak eskatutako babesa ematen dio: *“por la actuación denunciada llevada por el Sr. Jesús Zaballos, consistente en la atribución al Letrado de comportamiento desleal y de reiterada actitud de ocultamiento de información al Ayuntamiento, declarando que dicha actuación (del Sr. Zaballos) atenta contra la libertad, independencia y dignidad del Abogado Sr. Castells, con ocasión del ejercicio de su función, y el deber de secreto derivado de su actuación profesional en las Diligencias Previas núm. 687/2015 del Juzgado de Instrucción nº 3 de San Sebastián”*.

Aldi berean, Abokateun Elkargoaren Dekanoak bidalitako idazkia dago non, alde batetik, 2015eko uztailaren 14ean Alkate jaunak Abokatuen Elkargoari bidalitako gutuna jaso izanaren berri ematen du eta, bestetik, 2015eko uztailaren 30ean Gobernu Batzarrak **aho batez** hartutako erabakiaren berri ematen dio: *“además de otorgar (M. Castells abokatu jaunari) el amparo solicitado, se acordó trasladarle a Vd. la más enérgica protesta por la actuación llevada a cabo, expresándole la extrema preocupación del Colegio de Abogados de Gipuzkoa, por cuanto dicha actuación resulta particularmente grave, al tener lugar en un escenario donde el deber de secreto de la actuación profesional, obliga a quienes tienen acceso a las actuaciones a extremar su celo en la observación de la Ley, a fin de no quebrarlo”*

Gauzak horrela, Abokatu jaunak Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiaren aurrean kereila eramateari uko egiten dio, horrela argudiatuz: *“el comportamiento del Alcalde Sr. Zaballos imposibilita el ejercicio de mi función, en debidas y efectivas condiciones...”, “lamento verme abocado a dicha renuncia, motivada por una situación que no puedo dejar de considerar como insólita en mi vida profesional”*.

Esan, azkenean, 2015eko irailaren 3an Abokatuaren Elkargoari zuzendutako idazkian, Zaballos jaunak partziala izatea (*“actuación parcial”*) izatea egozten diola Abokatuen Elkargoari, honek hartutako erabakiak direla eta.

Beste aldetik, eta orainarte esandoaz aparte, 2015eko uztailaren 2an erregistratutako posta bidez bidalitako dokumentazioan agertzen denez, Alkate jaunak kereila tamizatzen duen prokuaradoreari ondokoa adierazten dio: *“teniendo en cuenta que la persona contra la que se querelló el Ayuntamiento es miembro de la misma formación política que un servidor, he considerado apropiado el facilitarles acceso directo a documentación y a los técnicos municipales (...) con el fin de que nadie pueda llegar a considerar que esta Alcaldía entorpece su labor o, incluso, que pueda llegar a ocultar información al respecto...”*

Aurreko guztia kontutan hartuz, eta Alkateak Korporazioaren uske utzitako dokumentazioa ikusita, Lasarte-oriako Udalak ondoko akordioak adosten ditu:

- 1.- Jesus Zaballos Alkateak Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian 687/2015-I kereilaren formalizazio eta defentsarako Udalak aurreko legegintzaldian izendatu zuen abokatuarekiko izan duen jarrera gaitzeztea.
- 2.- Miguel Castells jaunari akordio honen berri ematea, kereilaren zuzendaritzan egin duen lan eskerga, zorrotz eta akatsgabean eskertuz eta aitortuz.
- 3.- Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Pretuari akordio honen berri ematea, Elkargoak mantendutako posizioa ontzat hartuz, eta Jesus Zaballos Alkate jaunak 2015eko irailaren 3ko idazkian adierazitako “partzialkeria” gaitzetsiz, iraingarria hartzen dugun kalifikatiboa.
- 4.- 2015eko uztailaren bere idazkian alkate jaunak berak adierazten duen moduan, kereilan salatutako pertsona alderdikidea dela kontutan hartuz, interferentzia politikoak direla medio, kereilaren ibilbidea oztopatzen duela inork ez pentsatzeko, eta, dirudienez, Alkate jaunak dituen arazoak abokatuaren bulegora joateko, Alkate jaunaren alderdikide ez den zinegotzi bat izendatuko da Udalaren izenean kereilari lotutako gaiak tratatzeko.
- 5.- Bi asteko epean Bozeramaileen Batzarrera deitzea orain arte Udalak kontratatu duen abokatuak zer kudeaketak egin dituen jakinarazteko.
- 6.- Periodikoki Bozeramaileen Batzarrera deitzea, han izendatuko den zinegotziak eguneko informazioa eman dezan bai abokatuak bai instrukzioko epaileak egiten ari diren lanak azaltzeko.